

# Zientzia eta umorearen arteko erlazioa izango da aztergai “Zientzia eta umorea, a ze parean!” hitzaldietan Bidebarrieta Zientifikoaren itzuleran

*Irailan, Bilbo Zientzia Plaza (BZP) ekimenaren barnean, binetagileek, umoristek eta zientzia-dibulгатzaileek bi hitzaldi sorta eskainiko dituzte Bilboko Bidebarrieta Liburutegian.*

**Bilbo, 2023ko irailak 12.** Zientziaren ezagutzaren hedapena hainbat bideren bitartez egin daiteke. Askotan arlo akademikotik haratago doazen bideak dira. Horietako bat umorearen erabilera izan daiteke.

Egunkari edota aldizkarietan argitaratutako tirekin, bakarrizketa umoristiko eta txisteen bitartez edo, zergatik ez, koplak abestuz zientziaren inguruan hitz egin daiteke. Estrategia horiek guztiak erabilgarriak dira eta esperientzia horiek mintzagai izango dira [Bilbo Zientzia Plazaren](#) barnean antolatutako *Umorea eta zientzia, a ze parean!* hitzaldi sortan.

[Euskal Herriko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Bidebarrieta Liburutegiak antolatutako *Bidebarrieta Zientifikoa* hitzaldi zikloaren ikasturteari hasiera emango dion ekimena da.

## **Hitzaldi sorta bi irailan**

*Bidebarrieta Zientifikoa* zikloan ohikoena da hilabetero hitzaldi bana egitea. Oraingo honetan, berriz, bi datatan banatutako lau hitzaldi egingo dira.

Irailaren 20an, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Patxi Huarte Larraburu, *Zaldieroa*, komikigilea eta *Berria* egunkariko tira sortzaileak *Karakola eta barea* hitzaldia eskainiko du. Berarekin batera Helena Gonzalez Buron, Biomedikuntzan doktorea eta *Big Van Cienciako* sortzaileak *Zientzia espektakulu bihurtua (La ciencia hecha espectáculo)* hitzaldia emango du.

Astebete beranduago, irailaren 27an 19:00etan, Natalia Ruiz Zelmanovitch Astrobiologia Zentruko (CAB) komunikazio arduraduna, dibulгатzailea eta astrokoplalaria eta Kike Amonarriz Gorria soziolinguista, umorista eta *Bertsozientzia* saioetako aurkezlea izango dira gonbidatuak. Hurrenez hurren,



*Zientzia flamenko jartzen denean (Cuando la ciencia se pone flamenca) eta Zientzia umoregai: barrearen indar dibulgatzailea* hitzaldiak eskainiko dituzte.

Saio bietan hitzaldiak euskaraz eta gazteleraz izango dira eta itzulpen zerbitzua eskainiko zaie hurbiltzen direnei. Sarrera doakoa izango da edukiera bete arte, baina hitzaldiak [Bidebarrieta Kulturgunea kanalean](#) ikusi ahal izango dira *streaming* bidez.

### **Zientzia eta umorea, a ze pare!**

**Eguna:** Irailak 20, asteazkena

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Bidebarrieta Liburutegia (Barrenkale kalea, 4, Bilbo).

#### **Hitzaldiak:**

*Karakola eta barea.* Patxi Huarte Larraburu, *Zaldieroa*, Berria egunkariko binetagilea.

*La ciencia hecha espectáculo.* Helena Gonzalez Buron, Biomedikuntzan doktorea eta Big Van Cienciako sortzailea.

**Eguna:** Irailak 27, asteazkena

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Bidebarrieta Liburutegia (Barrenkale kalea, 4, Bilbo).

#### **Hitzaldiak:**

*Quando la ciencia se pone flamenca.* Astrobiologia Zentruko (CAB) komunikazio arduraduna eta astrokoplaria

*Barrearen indar dibulgatzailea.* Kike Amonarriz Gorria, soziolinguista, umoregilea eta *Bertsozientzia* saioen aurkezlea.

## La relación entre ciencia y humor será el tema de central de las charlas *Ciencia y humor, ¡vaya par!* en el inicio del nuevo curso de Bidebarrieta Científica

***En septiembre, dentro de la iniciativa Bilbao Zientzia Plaza, viñetistas, humoristas y divulgadoras científicas ofrecerán dos conferencias en la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao***

**Bilbao, 12 de septiembre de 2023.** La difusión del conocimiento se puede hacer a través de diferentes vías. Muchas veces son caminos que van más allá del ámbito académico y una de ellas puede ser el uso del humor.

Con tiras publicadas en periódicos o revistas, a través de monólogos humorísticos y chistes o, por qué no, cantando coplas se puede hablar sobre ciencia. Todas estas estrategias son útiles y estas experiencias serán el tema de conversación en la serie de conferencias *Humor y ciencia, ¡vaya par!*, organizadas dentro de [Bilbo Zientzia Plaza](#).

Estas charlas suponen, además, la apertura de un nuevo curso del ciclo de conferencias *Bidebarrieta Científica*, organizado por [la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao.

### **Dos sesiones de charlas en septiembre**

Lo habitual en el ciclo Bidebarrieta Científica es que cada mes se realice una conferencia. En esta ocasión, en cambio, se celebrarán cuatro conferencias divididas en dos fechas.

El miércoles 20 de septiembre a las 19:00 de la tarde Patxi Huarte Larraburu, *Zaldieroa*, dibujante de cómics y viñetista del periódico *Berria*, ofrecerá la charla *Karakola eta barea*. Le acompañará Helena González Burón, doctora en Biomedicina y fundadora de Big Van Ciencia, que impartirá la charla *La ciencia hecha espectáculo*.

Una semana más tarde, el 27 de septiembre a las 19:00 horas, los invitados serán Natalia Ruiz Zelmanovitch, responsable de comunicación del Centro de Astrobiología (CAB), divulgadora y astrocoplera y Kike Amonarriz Gorria, sociolingüista, humorista y presentador de la iniciativa *Bertsozientzia*. Ofrecerán, respectivamente, las conferencias *Cuando la ciencia se pone flamencay Barrearen indar dibulgatzailea*.

En ambas sesiones las charlas serán en euskera o castellano y se ofrecerá servicio de traducción a quienes acudan. La entrada será gratuita hasta completar aforo, pero las conferencias se podrán ver en el canal [Bidebarrieta Kulturgunea](#) a través de streaming.

### **Ciencia y humor, ¡vaya par!**

**Día:** miércoles, 20 de septiembre

**Hora:** 19:00

**Lugar:** Biblioteca Bidebarrieta (C/Barrenkale, 4, Bilbao).

#### **Conferencias:**

*Karakola eta barea.* Patxi Huarte Larraburu, Zaldieroa, viñetista del diario Berria.

*La ciencia hecha espectáculo.* Helena González Burón, doctora en Biomedicina y fundadora de Big Van Ciencia.

**Día:** miércoles, 27 de septiembre

**Hora:** 19:00

**Lugar:** Biblioteca Bidebarrieta (C/Barrenkale, 4, Bilbao).

#### **Conferencias:**

*Cuando la ciencia se pone flamenca.* Natalia Ruiz Zelmanovitch, responsable de comunicación y astrocoplera del Centro de Astrobiología (CAB)

*Barrearen indar dibulgatzailea.* Kike Amonarriz Gorria, sociolingüista, humorista y presentador de la iniciativa *Bertsozientzia*.